

opusdei.org

Luis Olaortua da enpresako etikaren izena

Ingeniaritza eta
Aholkularitzako Euskal
Elkarteak (AVIC) “Luis
Olaortua” Saria sortu du Etika
eta enpresa garapena
sustatzeko

2004 Mai 6

Bere XX. urtemugaren ospakizuna
dela eta, Ingeniaritza eta
Aholkularitzako Euskal Elkarteak
(AVIC) “Luis Olaortua” Saria sortu du

Etika eta enpresa garapena
sustatzeko.

"Estrategia Empresarial"
aldizkariaren 2003ko alean agertzen
denez, ekitaldi bat antolatu zen, Idoia
Zenarruzabeitia Eusko Jaurlaritzaren
Lehendakariordea mahaiburuan
zela, saria aurkezteko eta Maria
Elena Setieni, Luis Olaortuaren
alarguntsari, oroitzapenezko
eskultura bat eskuratzeko.

Enpresa garapena eta enpresen
arteko elkarlana sustatzeko
proiektuak aurkeztu ahal izango
dira, eta AVIC, IDOM, CONFEBASK eta
Eusko Jaurlaritzako ordezkariez
osaturiko epaimahaiak balioetsiko
ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko
ingeniaritza eta aholkularitzako
enpresa guztiek parte hartu ahal
izango dute lehiaketan.

Luis Olaortua 1932ko Maiatzaren
30an jaio zen. Ingeniari,
enpresaburu eta zazpi seme alaben

aita, Opus Deiko kidea izan zen
1970ko Uztailetik aurrera. 2003ko
Uztailean zendu zen.

Estrategia Empresarial, 2003

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/luis-olaortua-da-
enpresako-etikaren-izena/](https://opusdei.org/eu-es/article/luis-olaortua-da-enpresako-etikaren-izena/) (2026 Mar
10)